



## Oñatiarrak Iparraldian 1936-1939ko gerratian



Frankistak 1936ko udazkenian Oñatin sartu ziranian, herritar askok Bizkaira jo euen igesi. Hurrengo urtian Bilbo jausi eta Santander eta Asturiaseko frentia desegin zanian, burrukan edo afusilauta hil etziranak, batzuk preso hartu zittuain eta beste batzuk, zela edo hala, Europa edo Ameriketako hainbat estatutara alde egin bihar izan euen: denbora gutxirako, urte askotarako edo betiko, batzuk jaioeterrira sekula bueltatu etzirialako.

Esan dogunaren adibide bat gaurko fotografixia da. Donibane Lohizuneko *Villa Victoria* izeneko etxe aurrian atarata dago 1937ko azaruaren 1ian. Hantxe topau euen babeslekua puskatxo batian taldetxo honetan agerketan diranak. Gehixenak EAJ PNV inguruko oñatiarrak ziran, batzuk II. Errepublikara garaietan kontzejal izandakua edota alderdi-lanetan nabarmendutakoak. Frantziako estaduan alemanekin gauzak larritu ziranian, honeitako batzuk Ameriketara iges egin euen. Bat han hil zan eta beste batzuk Franco hil ondoren bueltatu ziran Oñaira.

Ezkerretik eskumara honeitxek diittuzue:

Zutik atzian: Eñike **Elorza**, Etxaluzekoa; Esteban **Letamendi**, Plazakua; Pepe **Arrazola**, Kale Barriko Konfitteruenekua; eta Luis **Arkauz**, Garagaltza auzoko Garagaltza Haundi baserrikua.

Zutik erdixan: Felipe **Jausoro**, Kale Zaharrekua; Elias **Galdos**, Zañartuko Etxenausikua; Karlos **Moiua**, Tokillokua; [?] **Segura**, legazpiarra; Migel **Arrazola**, Goribar auzoko kurtideriakua; Joxe **Arregi**, Atzeko kaleko Juanitosienekua; eta Migel **Enparanza**, Zañartuko Usakokua.

Behian jarritta: **Aldaz** ahizpak, bilbotarrak; Sorkunde **Arrazola**; eta **Dominga** Arrazola; azkenengo bixak Migel Arrazolaren alabak.

J. E.

Fotografixia Arantxa Jauregik itxi dosku. Argibidiak, berriz, Arantxak berak, Miren Arrazolak, Pilar Barrenak eta Gurutz Jausorok eskuratu doskue.

**Oharra:** Otsailleko alian UHPko bataillueko argazkixan behian ezkerretara 43. numeruaz datorren soldadua **Pedro Agirrezabal**, *Aitzekua*, da, gerria amaitu aurretik Burgosen afusilau euen. Antonio Aitzelai eta J. Ramon Garairen informaziñuari esker identifikau ahal izan dogu. Eskerrik asko!

## COB-TABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

### Etxe eta lokalen

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta

### Gestio orokorrak

- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea  
Tfnoa: 943 - 78 05 87  
E-mail: INKORTA@teletelone.es

20560 OÑATI

# ELORZA

## Burdindegia eta brikolajea

Kale Barria, 17 Tfnoa: 78 07 80

OÑATI